

egiazkoak: garrantzitsuena dira».

Liburu osorik ez, baina txatal batzuk baditu euskaratuta. Cioranek suizidioari buruz idatzitako hamaika aforismo itzuli zituzten, esaterako, Felipe Juaristik eta Koldo Etxabek *Porrot* aldizkariak 1984ko azaroan gaiari eskainitako monografikoan. Bazuten non hautatua. Izan ere, Cioranek ia bizitza osoa eman zuen gai zehatz horri buruz gogoetan eta idazten. Giza kondizioaren azken askatasun esparrutzat zuen ekintza pentsalariak, eta, ezerezaren ideiak bezala, hasieratik bukae-

### Heriotza, ezereza, suizidioa eta asperdura izan ziren Cioranen gogoetarako gai kuttunetako batzuk

raino blaitzen du gaiak haren obra. «Heriotzari buruz pentsatzen ez dudan aldiro daukat nire baitako norbaiti tranpa eta iruzur egiten diodan inpresioa». Gai horri buruz idaztearen ekintzak baketzen zituen haren suizidatze gogoak, Fernando Savater pentsalariarekin 1977. urtean izandako solasaldi batean onartu zuenez. «Bizitza eta neure burua iraintzeko idatzi dut. Emaitza? Hobeki eraman ditut bai neure burua bai eta bizitza ere».

### Suntsitzeko koadernoak

Eta suizidioari eskainitako bere ehunka testu horietako batean idatzita utzi zuenez, egin, egingo zukeen bere buruaz beste, baldin eta ez balitz Johann Sebastian Bach konpositorearen bi biolinentzako kontzertuagatik. Hamabost minutu inguruko pieza horretan, «ezerezekiko eztitasun bat» entzuten zuen pentsalariak. Hutsuneari biraka aditzen zituen hariak, eta zirimola hari esker itzultzen zen bere izatera, «ezerezekiko eta guziarekiko esker onez horditurik». Baina bere buruaz beste egiteari buruzko ideari hamaika lerro eskaini ostean, 84 urterekin hil zen, Parisen, Alzheimerre luze izan ondoren, pilula modura osatutako hamaika txatalen obra argitaratu zabal bat utzita atzean, eta etxeko ganbaran ezkutaturik, hil ostean soilik ezagutu ziren beste 34 gogoeta koaderno idatzita.

Azalean ohar bat zeramaten haietako askok: «Suntsitzeko». Baina egun bilduma modura argitaratuta irakur daitezke, egileak izatearen eta ez izatearen artean bizi zuen borrokaren azken froga modura.

## Ibaian behera ura nola

### Irati Majuelo

**O**ihane Amantegiren estreinako lana da Elkar argitaletxearekin plazaratu berri duen eleberriz motz hau, ipuinaren eta nobelaren artean jolasten den narrazioa. Istorio labur bezain intentsio batean, Amerikako Estatu Batuetako lurretara garamatza idazle zornotzarrak, Ochlockonee ibaiaren ertzean, bizitzak eta heriotzak elkar agurtzen duten bidegurutzera.

Ume baten begietatik ikusten dugu Alabamatik Georgiara aldatutako bikote gazte bat, ibaiertzean etxea zutitzearekin batera familia eta bizitza berri bat eraikitze- ra doazenak. Herritar xumeen bizimoldea, eta bizitza sinpleak sinple izateari uzten dienez, dakartzan arantzak. Ochlockonee ibaiak landutako lurra ur aspian hartzeko izaten dituen apetak, eta

hondamendi horren fruitu, urtero udaberria gozotzen duen tupelo ezia. Ume baten begietatik ikusten dugu, era berean, bere jaiotza propioa, eta gertuko heriotza baten denboran zehar hartzen dituen formak: mina, tristura, berunezko pisua, hutsunea, alboan sentitzearen laguntza, agurra.

Hasiera batean bihurturik eta malkarrik gabea irudi dezake-



### 'Ibaiertzeko ipuina'

Elgilea: Oihane Amantegi.  
Argitaletxea: Elkar.

## Herio aurki etorriko da

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero


**I**zenburu luzeko (*Paulatxo: bizitzaren amaiera haur eta nagusiei kontatua*) al-bum honen gaia aski ezaguna da haur literaturan. Batek baino gehiagok pentsatuko genuen berriz ere kontu berarekin ari zitzazkigula, heriotza hitza saihesteko esaldia eta guzti. Gainera denok dugu hain kontu delikatuak besteek baino hobekiago agertzen duela iruditzen zaigun libururen bat.

Aitortu behar da, ordea, *Paulatxo* beste zerbaitez ari dela, orain arte gutxitan ikusi den zerbaitez: hil hurren dauden pertsonekin egoteaz. Istorioak kontaktatzen digu halako trantzea bizi duen komunitate batek nola jokatzeko duen portaera ereduak, eta emozioen deskribapenak egiten ditu, na-

rratzailea haur bat izanik. Ilustrazioek laguntzen dute giro leuna sortzen, marrazketan, koloretzatzean eta gag ongi-neurtu bat-tzekin.

Aipatzekoa da ilustrazioek al-bumaren ohiko orrialdeko irudiaren eredu apurto eta komikiaren sekuentziario erakusten dutela, formatu honen bertute narratiboz baliatzeko.

Nabari da talde lana dela, denboraz, emaitza borobiltzeko asmoarekin egina.



### 'Paulatxo'

Idazlea: Hainbat egile. Ilustratzailea: Annick Masson. Itzultzailea: Miren Agur Meabe. Argitaletxea: Ttartalo.

en istorioak sakontasuna eta interresa irabazten du aurrera egin ahala, haurren inozentzia horren inozentzia ere ez dela behin eta berri- berri berrestez gain. Amantegik bere hitzetan harrapatu eta ur-lasterretan behera eramaten du irakurlea, helmuga ahaztu duenak bidearen xehetasunak gozaten dituen gisan. Uraren murmurioaren eta erleen burrunbarraren artean, ordea, galdera bat uzten du zintzilik AEBen hegoaldeko paisaiaren hondoan: ezer kentzen duen orok beste ezer desberdina badakar, ibaiaren uholdeek ezia nola, maite den norbaiten heriotzak zer dakar?

Heriotzaren misterioak zein hutsunearen fisikotasunak hartzen dute narrazioaren pisua, eta gainerakoa bigarren planoan gertatzen da. Apenas baliatzen ditu Amantegik lau zertzelada istorioa Georgiako parajeetan kokatzeko: ibaia, etxea, herririk, ez du gehiagorik behar. Harmonikaren doinuek eta landarako katiuska gorriek egiten dute gainontzekoa, gure memoria literario eta zinematografikoak bestela, berehala gorpuzten baita hegoaldeko paisaia ohikoa irakurlearen begietan.

Denboran zehaztapen handirik gabe ere, badakigu noiz, zer, nola, badakigu ez dela orain, eta bereziki, ez dugula behar zehaztasunez jakin historiaren zein urte xehetan jazotzen den istorioa. Izan ere, ez da hain esanguratsua, heriotza, gai unibertuala izateaz gain, atenporala ere badelako. Narrazioa gerta zitekeen beste espazio batean, beste garai batean, baina ezin uka idazlearen hautuek, berezko soinu bandaz lagundurik, ukitu berezia ematen diotela liburuari.

Estilo propio markatua du Amantegik, bizia eta adierazkorra. Idazkera pertsonal hori da, ziur aski, lehendabiziko argitalpen honi haize freskoa ematen diona, betiereko gai bati bestelako begiratu eskaintzen diona. Mitikoa eta originala da, aldi berean, *Ibaiertzeko ipuina*-k dakarkigun giroa eta proposamena. Harmonikaren doinu eritmikoan aurkeztu eta, ibaian behera ura nola doan, aurrera eramaten gaituena ezinbestean, bizitzaren mugimendu etengabe baina hausnarketen zurrumbiloetan korapilatutik, txalupatik sekula jaitsi gabe, bake moduko batean itsasoratze azkenean.

## Ikimilikiliklik!

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero

**B**ada hortik zehar jendea liburuk gorroto dituen. Harrigarria dirudi, baina egia da. Haietako batzuek libururak desagertzea desio dute, eta muturrenekoek suntsitzea ere bai. Doilorra mundua. Zorionez, gu gaude arriskuan dauden libururak salbatzeko. Preseski, *Askatu liburu hau!* suntsiketa saiakera baten lekukotza da. Eta gure ahalegina beharko da basakeria gerta ez dadin. Kontu serioa, bai horixe!


Liburuan bizi den aztia bere laborategia erakusten hasi zaigun- an mezu bat iristen zaio, mezu suntsigarri batekin: «Liburu hau irekiko den azkeneko aldia da!».

Lkaragarria!  
Ulertuko duzun bezala, Biblius –hala du izena aztia– zer egin ez dakielako dago, eta guri, irakurleoi, laguntza eskatzen digu. Biraoa deuseztatzeko formula magiko

bat beharko duela uste duenez, ea guk ba ote dakigun baten bat galdetzen digu. Izatekotan –giztzen du– formula zaharra izatea garrantzitsua da, formula ahal- tsua.

Eta abiatuko gara bere laborategi, gela ezkutu, liburutegi eta igarobide sekretuetan barrena, orrialdez orrialde, salbazio bila. Lortuko ote dugu?

Saiatu, saiatu gara...



### 'Askatu liburu hau!'

Idazlea: François Hanozet. Ilustratzailea: Gregoire Mabire. Itzultzailea: Aztiri. Argitaletxea: Ttartalo.